

TXETXENIA. Aste amaiera odoltsua izan da Kaukasoko herrialdean borroken ondorioz

Basaiev gerrillari independentistaren anaia hil dutela iragarri du Kremlinek

Gerrillariak, aldiz, 19 soldadu errusiar, 7 zibil eta 3 polizia hil dituzte azken erasoaldietan

Agentziak | MOSKU-GROZNI

Kremlinek iragarri zuen atzo Xirvani Basaiev, Xamil Basaiev txetxeniak gudaburu independentistaren anaia hil egin zutela errusiar unitate bereziek. Albiste hau, gezurrezkoztat jo zuen, ordea, Aslan Maskhadov presidente txetxeniarrak.

Xirvani Bssaieven heriotzaren berri Txetxeniako gerraz Vladimir Putin errusiar presidentearen eledun kargua duen Sergei Jastrjembskik zuen eman. «Gure segurtasun indarren bi ekitaldiren ondorioz hil dira gerrillariburu inguruko bi pertsona garrantzitsu» aditxerat eman zuen Jastrjembskik, bata Xirvani Basaiev eta bestearen izenik eman gabe, Ruslan Tsaragaiev gudaburuaren ordezkoa zela zehaztuta.

Maskhadoven ingurutik gezurtatuak izateaz gain, arreta handiz ibili behar da albiste hauekin, Errusiako agintari zibil eta militarrek behin baino gehiagotan txetxeniak gerrillari buruzagi batzuen heriotzaren berri eman baitute eta hauek bizirik agertu baitziren ondorengo egunetan. Erabat seguru dagoena da, ordea, joan den aste amaiera oso odoltsua izan zela Txetxenia, gatazkan dauden alde guztientzako. Igandean bakarrik, gutxienez 12 lagun hil ziren, eta aurreneko orduetan 19 soldadu errusiarrek bizia galdu zuten.

Bislan Gantamirov errusiarren alde jarritako txetxeniak



JURI TUTOC / AP

Errusiako Armadako soldaduak Grozniko merkatu batean. Borrokak areagotu egin dira asteburuan.

miliziaburuak zuzendutako Grozniko udaletxearen kontra gerrillari independentistek igandean egindako erasoan, gutxienez lau lagun hil ziren, hots egoitza zaintzen zuten bi polizia eta erasotzaileetakoak ziren bi gerrillari.

Igandean beti ere, komisaria baten aurka izandako tiroketan, berriz, polizia bat hil zen eta beste bi zaurituta geratu ziren. Azkenik, Moskuk eraturako txetxeniak administrazioarekin eskuz esku ibiltzeaz akusatutako 7 zibil erailak izan ziren, hauetatik sei Urus-Martaneko herrialde-

an eta bat, aldiz, Gudermes inguruan.

Kadirov Moskuren aldera haserre

Akhmad Kadirov erlijio-buru ohia presidente duen errusiarren aldeko administrazio honen inguruko iturriek jakitera eman zuten, halaber, ostiral eta igande gauak bitartean, 19 soldadu errusiar hil zituztela gudukari independentistek. Moskuren aldekoa izanagatik, Kadirov hitz gogorak izan zituen atzo Kremlinen aldera, honek esan zuelarik igandean bere al-

derdia aukeratutako txetxeniak buruzagiek ez zutela herritarren sostengurik.

«Begirunezko buruzagi bezala onartuta izateko, sostengu morala eta finantzakoa behar genuke; gure herriko jendea, ordea, penatua da» esan zuen mufti ohiak «zeren eta, espero baitzuten bizi baldintzek hobera egingo zutela». «Horrelakorik nola egon liteke errublo bakar bat ez dugularik jaso berreraikuntzarako edo gerra kalte ordainerako, indar federalen jazarreta, ordea etengabea delarik» adierazi zuen Kadirov.

ALEMANIA

Kanpoko langileen eskubideak «izoztu» nahi ditu kantzilerrak

Agentziak | MUNICH

Alemaniko kantziler Gerhard Schroederrek Bavarian adierazi duenez, Europako Batasunean sartzeko diren hainbat herrialdeko langileek zazpi urtez itxaron beharko dute Europako mendebaldeko herrietan lanpostuak lortu ahal izateko.

Neurri honekin Alemaniaren lege kanpo eta soldata baxuen truke lan egiten ari diren ekialdeko langileen egoera luzatu nahi du Schroederrek, berriemaileen arabera.

Susmoak aspaldikoak baziren ere, egitasmoa argitaratu den lehen aldia izan da. Langileen mugitzeko eskubidearen inguruko erabakia datorren urtean hartuko du EBk. Alemaniaren arabera, tarteko epe bat behar da «hainbat hutsune» betetzeko Batasunaren zabalitze prozesuan.

Espania eta Portugal batasunkide bihurtu zirenean antzeko epeak ezarri zitzaizkiela argudiatu du Alemaniako kantzilerrak. Bere ustez, langileen eskubideen inguruko legegik «malguak» izan beharko lukete.

Gerhard Schroederren hitzek harridura sortu dute ekialdeko Europan. Poloniak Berlinen duen enbaxadako iturriek adierazpenok alemaniarrek lasaitzeko egin direla adierazi dute.

SERBIA. Bozen bidez Legebiltzarrean gehiengoa lortu nahi du Kostunicak

Larunbateko hauteskundeak irabazteko faborito da lehendakari federalaren alderdia

Agentziak | BELGRAD

Jugoslaviako Federazioan aginteaz jabetu diren Vojislav Kostunica presidentearen inguruko indarren hurrengo helburua da Serbiako Legebiltzarrean gehiengoa lortzea eta, honen ondorioz, beste gobernu bat osatzea.

Hauteskundeak datorren abenduaren 23an egitekoak dira, egun horretan 6,5 milioi serbiarrek aukeratu baitituzte 250 diputatu, 8 alderdi edo koalizioak aurkeztutako hautagaien artean. «Gure helburua

da Milosevicen alde dauden elementu guztietatik askatzea eta boz hauen ostean egitasmo honentzako ahalak izango ditugu» azaldu du Serbiako hurrengo gobernu-buru izan daitekeen Zoran Djindjic.

Orain arteko inkesta guztiek, 18 alderdi biltzen dituen DOS Serbiako Oposizio Demokratikoaren garaien zabala iragarri dute. Esaterako, Beta albiste agentzia independenteak igandean plazaratutakoak zioenez, DOSek bereganatzen ditu boto asmoen %71 eta Slobodan Milosevic Jugoslaviako presiden-

te berria buru duen SPS Serbiako Alderdi Sozialista, aldiz, %13ekin soilik geratuko da.

Aldaketa sakonagoen zain

Bozetako begirale dira gobernu kanpoko zenbait erakunde —CESID Hauteskunde Libre eta Demokratikoentzako Zentroa eta OSCE Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeak kasu—.

Bozetan Milosevicen aldeko aginte eremu guztietatik haitzuta egon behar lirateke, hala nola 100.000 lagunez osatu Polizia serbiararen agintaritzatik.

**ESTRADIZIORIK
ENTREGARIK EZ**

Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea.

Gaur Fino, bihar zenbat gehiago?

**Herrialdeko Manifestazioa
Gaur 20:00etan, Bilbon,
Arriagatik
Kontsulatu Frantseseraino**

